

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Enpresak bezeroekiko etengabeko harremana izango du, bezero edo kontsumitzaile berriak lortzeko, jada dauzkagun bezeroei eusteko eta salmenta kopurua handitzeko. Harreman hori mota ezberdinetakoa izango da.

Bezero berriak lortzeko eta salmenta kopurua handitzeko, nagusiena lehenengo eskuko publizitatea eta propaganda izango da. Enpresak bertako langile gutxi batzuk Donostiako toki jendetsuenetara bidaliko ditu, hor bezero potentzialei saltzen dugun produktuaren inguruko informazioa emateko hainbat liburuxka banatuz. Bestalde, jendearengana iristeko "El Diario Vasco" bezalako egunkarietan dirua ordaindu eta gure anuntzio erakargarri bat jartzeko intentzioa dugu.

Jada baditugun bezero horiek mantentzeko laguntza pertsonal bat eskaintzen diegu uneoro. Dendatik irekia dagoen edozein momentutan pasa daitezke beren dudak argitzeko (zerbitzu pertsonalizatua), eta itxita dagoen momentuetan ere interneten bidez gurekin kontaktuan jarraitzeko aukera dute (zerbitzu automatizatua).

